



2.6 KANALAK

Bezeroekin komunikatzeko, modu desberdinak izango ditugu, batetik, hainbat sare sozialetan kontuak izango ditugu publizitatea eginez bezeroak erakartzeko adibidez, instagramen, facebooken... Bertan, zuhaitz-etxeen argazkiak igoko ditugu, ditugun eskaintzak eskainiko ditugu eta bezeroek behar duten informazioa bertan egongo da. Informazio gehiago beharrez gero, email bat utziko dugu edozein kezka zuzenki galdetzeko, bertan egon diren bezeroek beraien esperientzia kontatzeko edo iruzkintxo bat uztekon aukera izango dute eta esperientzi ona izaten badute gure enpresarentzat lagungarri izan daiteke bezeroak lortzeko.

Gure zerbitzua erreserbatzeko, bi modu eskeiniko ditugu online bidez edo bertara joanez, guretzat bertara joatea interesgarriagoa da informazioa zuzenki eman dezakegulako eta errazagoa delako, baina ulertzen dugu kanpotik datorren jendearentzat errazagoa dela online biez horregatik ematen dugu aukera hori ere. Momentuan joaten badira eta lekua badago aukera izango dute bertan geratzeko. Zerbitzuaren kontrola guk eduki nahi dugunez eta bezeroekin harremana estuagoa izan nahi dugunez, erreserba modu batera edo bestera egin, bertara joan beharko dute eta guk erakutsiko dizkiegu ditugun baliabideak, etxeen arautegia eta funtzionamendua, hau da, informazio guztia.